



Gaia: Empresa aholkularitzaren Goi Teknikari bi lanpostu betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan lan egiteko. Behin-betiko emaitzak.

Aukeraketa-prozesua:

Frantziako lan-legediaren arabera, honako lanpostu hauek kontratatzea du helburu: bi Goi Teknikari Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan.

Prozesuak honako faseak ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta hautagaiak hautapen prozesuan nahitaezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala
4. Merituen balorazioa.

Prozesuaren hirugarren eta laugarren etapetan, elkarrizketa bat egin da, eta ondoren, elkarrizketa gainditu duten hautagaien merezimenduak baloratu dira. Elkarrizketa eriketa gainditzeko, gutxienez 18 puntu lortu behar izan dira. Puntu horietatik behera, hautagaia bazterturik geldituko da eta ez da bere merezimenduak baloratu. Deialdiaren oinarrietako 6.2.2 atalean jasotako merezimenduak baloratu dira.

Elkarrizketak Parisen egin ziren, 2023ko apirilaren 20an. Deitutako 7 hautagaietatik bat ez zen aurkeztu eta ez zuen elkarrizketan parte hartu. Elkarrizketa bitarteko telematikoen bidez egin zuen hautagai batek, eta gainerako hautagaiak Parisera bertaratu ziren.

Elkarrizketen eta merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak maiatzaren 2an argitaratu ziren eta 5 egun naturaleko epea ireki zen maiatzaren 7rarte, erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-behineko emaitzak behin-betikoak bihurtu dira. Maiatzaren 8an, lehenengo postuan zegoen hautagaiak idazki bat aurkeztu zuen, hautaketa-prozesua bertan behera utzi zuela eta hautaketa-prozesuaren behin-betiko sailkapenean puntu gehien lortu dituzten hautagaiak lan postuak esleitzerakoan legokiekeen lanpostuari uko egin ziola jakinarazteko.

Hautaketa-prozesuaren azken etapa honetan, hautaketa-prozesuan bete beharreko bi lanpostuak esleituko zaizkie egindako proben eta merezimenduen balorazioaren baturan puntuazio handiena lortu duten hautagaiak, eta ordezkapen-zerrenda ezarriko da.



Proba baztertzailerak gairiditu dituzten hautagaiak lortutako behin-betiko puntuazioak, proba guztiei dagozkienak eta merezimenduen balorazioa batuta, hauek dira:

Erregistro zenbakia	Ezagutza Proba	Elkarriketa	Merituen Balorazioa	TOTAL
RRI-15032023-018	19,75	24	33,10	76,85
RRI-15032023-021	17,00	21	27,00	65,00
RRI-15032023-023	23,75	19	19,12	61,87
RRI-15032023-019	20,75	20	14,12	54,95

RRI-15032023-018 erregistro-zenbakia duen hautagaiak lanpostuen esleipenean hautaketa-prozesuarekin jarraitzeari eta legokiokeen lanpostuarekin jarraitzeari uko egion dionez, honako hauek dira hautaketa-prozesuan aurrera egin dutenen artean puntuazio altuena lortu duten eta, beraz, empresa aholkularitzaren arloan goi-mailako teknikarien bi plazak hautatzeko prozesuan aukeratzen diren hautagaiak:

Erregistro zenbakia	Izen abizenak
RRI-15032023-021	Beñat Lekuona Mariscal
RRI-15032023-023	Sonia de la Fuente Garagalza

Puntuazioaren hurrenkeran, hautapen prozesuko ordezkoen zerrenda osatzen duten hautagaiak hauek dira:

Erregistro zenbakia
RRI-15032023-019

Parisen, 2023ko maiatzaren 22an.

María Aránzazu López de Munain Zulueta
Ordezkaría
Euskadiren Frantziako Ordezkaría
Hautaketa Epaimahaiaren Mahaiburua